

Erdal-euskera iztegia zertan doan azaltzen dabe lan onetan diarduen euskaltzainak. "B" izkia amaitutzat dagoala diñoe.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu emoten jako.

\* \* \*

Bilbao'n 1946'garren urteko Epaila'ren 29'an, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Etxaide, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak, il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz asi da batzarra.

Lenurreko batzar-agiria irakurri da ta ao batez onetsi.

Urkijo jaunak diño Burdeos'ko irakastetxe nagosian, ikaste-gorengo mallea artzeko, Lafont jaunak euskerea gaitzat daben lana aurkeztu dabela. Pozik entzun da barri au.

Urrengo Azkue jaunak "Nuevas curiosidades lingüísticas" deritxon lana irakurri dau. Au bere pozik entzun da.

Gero J. M. Pabon jaunak Euskaltzaindia'ri bidalduko eskutitz bat irakurri da. Eskutitz orretan, Federico Castro Gisasola jaunaren alargunaren izenean "Léxico etimológico del euskera. Primer intento de sistematización del vocabulario vasco" deritxon liburu-gai bat eskintzen dautso Euskaltzaindia'ri, beronek erosi gura ba dau. Euskaltzaindia aspaldian dirutan urri dagoala-ta, aiataturiko liburu-gai ori ezin oraingoz erosi leikela erantzun dakiola ebatsi da.

Urrengo Zamarripa jaunak irakurri dauz lan bi: "Conjunción "ta" con significación causal", bata; "Conjunción "ta" significando "y compañía", bestea. Atsegiñez entzun dira.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetasei'garren urteko Orrila'ren ogetamaikan, Azkue, Urkijo ta Oleaga euskaltzainak, lenengoa maipuru dala, il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra egiteko, batzen dira.

Araudizko otoitza esanda, lenurreko agiria irakurri ta ao batez onetsi da.

Urrengo Azkue jaunak irakurri dau lantxo bat: "Bete y bat", "Be y ba", "Otz", "Argi", "Bero", "Ur", "Zur", "Nor", "Zer" eta abar itzen gora-bera-batzuk da gaia.

Urkijo jaunak, gero aiatatuten ditu eta eurok dirala-ta azalben egoiak egiten ditu, urrengo liburu onek: "R. Lafont. Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle"; "Lakombe et R. Lafont. Indo-europeen, basque et ibere". Ganera adierazoten dau Lakombe jaunak, Prantzia'ko aldizkingi baten euskal-gaizko irakurkizun bat argitaratu dabela. Pozik entzun da guzti au.

Esta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Bilbao'n mila bederatzireun eta berrogetasei'garren urteko Iraila'rei ogetazapi'an, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak berton dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenurreko batzarraren agiria irakurri ta gero, Azkue jaunak irakurten dauz lantxo batzuk. Ona emen euroen atzalburuak: "Bere y be", "Bada y ba", "Un caso curioso de epéntesis en la numeración", "Algunas